

**MENDEBALDEAK
BADU EKIALDEA.
ZUBEROA: HIZKUNTZA,
LITERATURA ETA
ETORKIZUNA**

Bilbao
2007

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

Edizioaren arduradunak: Kepa Altonaga, Eneko Barrutia eta Esti Izagirre

Azaleko irudia:

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.

Silutegia: Baster, S.L.L.

ISBN:

Legezko Gordailua: BI- -07

Aurkibidea

Aurkezpena	
<i>Kepa Altonaga</i>	7
Zuberoa : mitoan ezaguna, errealitatean ezezaguna	
<i>Allande Sokarros</i>	11
Zubereraren bilakaeraz adibide batzuk	
<i>Jean-Baptiste Battittu Coyos</i>	21
Pastorala inarrausi	
<i>Titika Rekalt</i>	39
Xiberoko kantorearen eta dantzaren aitzina eramaitea eta berritzea	
<i>Jean Bordaxar</i>	47
Mugako zuberotarrak	
<i>Philippe Etxegorri</i>	53
Zuberoako literaturaz	
<i>Jean-Louis Davant-Iratzabal</i>	77

Atharratzeko biltzarrak eta Atharratzeko taldea 14ko gerla atarian	
<i>Kepa Altonaga</i>	159
Pierre Topet Etchahun-en gainean zenbait iritzi	
<i>Jabier Kalzakorta</i>	231
<i>Imanol Berrituaz zertzeladak</i>	
<i>Joan Mari Torrealdai</i>	253

Aurkezpena

Kepa Altonaga

“Entziklopedian irakurri dut Zuberoa dela Euskal Herriko lurralde historikorik txikiena, baina hala ere nortasun handikoa dela, eta baita ere euskal lurralderik *berezi*ena egiten dutela, hala zubererak nola musikak, kantuak eta dantzak, edo bizirik atxiki dituen eta Erdi Aroko antzerkiaren tradizioan kokatzen diren pastoralek eta inaute-rietako maskaradek, zein arkitekturak –malda handiko arbel-teilatuak eta hiru geziko elizak– eta paisajeak.

Kontua da lerro horiek irakurtzean begitandu zaidala entziklopedietako ohiko aseptikotasuna barik beste zeozeren zipriztinak daudela. Une batez pentsatu izan dut artikulugileari Zuberoa mitikoaren xarmaz kutsatu zaiola idazki hori. Izan ere, mito bilakatu zaigu Zuberoa. Eta mito horren deiari erantzunez-edo makina bat euskaldunek urterotero erromesalditxo bat egiten dugu ekialde urrun horretaraino, gure Meka *eijer* horretako espirituak zelan edo halan berrindar gaitzan. Denok ezagutzen dugu fenomeno eta, seguruenara, inoiz edo behin joanda gaude maskaradetara edota pastoralen batera.

Ez dakit egin ote den fenomeno horren azterketa soziologikorik. Nik neuk irakurri dudana azalpenik gogobetekoena, Atxagaren alfabe-

to batean aurkitu nuen¹. Berorretan, *c* letrari dagokion atalean, *Canciones populares* izeneko epigrafe guztiz argigarria damaigu Atxagak. Haren esanean, hirurogeiko hamarkadaren azken aldian erresistentzia kultural eta politikoa gorpuzten hasi zen, diktadura frankistaren kontra. Mugimendu horretan oso munta handikoak izan ziren musikariak, idazleak eta artista plastikoak, militante politikoez gain. Eta erresistentzia horrek sinbolo modura erabili zituen herri-kantak, ezinago positiboak zirenak Franco jeneralaren diktaduraren negatibotasun erabatekoaren aurrean.

Jakina, herri-kantak oso xumeak dira, pretentsio handirik gabekoak izatez. Urte horietan ez zen eztabaidarik falta, kanta horien balioaren gainean, ba ote ziren beste herri eta kulturetakoekin konparagarriak. Bazeuden ere kanta-errekopilazioak, betirako ahanzturatik begiratzeko jadanik inon abesten ez ziren kantak, salbu-eta Zuberoan. Eta konturatu orduko kanta pollit horiek goratu egin ziren sinbolo mailaraino. Halandaze, sasoi horretako estudianteak, herri-kanta bat murduskatzen zutenean, bai, errebelde eta diktaduraren opositore sentitzen ziren, moderno sentitzen ziren inongo frankista izan ez zitekeen neurrian, eta, oroz gain, zinezko euskaldun sentitzen ziren.

Atxagaren iritziz, oso deigarriak dira herri-kantek sortaraziriko modernotasun eta euskalduntasun sentimenduak.

Oso deigarria da, batetik, hizkuntza gutxitu eta marjinal batean garaturiko ekoizpen kulturala, kostunbrismo lizundu eta efektistan amildu beharrean, abangoardiakoa suertatzea. Urte horietako artistek ondare tradizionalera zuzendu zituzten begiak, baina irakurketa berritzailea egiteko, batzuetan neorromantikoa, besteetan brechtiarra,

¹ ATXAGA, B. 1998. "Alfabeto sobre la cultura vasca". 17-42 in: *Euskal Herria gaur*. Caja Laboral. 191 orr.

bestetzuetan experimental eta abangoardistagoa. Eta Atxagak hari horretan aipatzen dizkigu Gabriel Aresti, *Ez dok amairu* eta Eduardo Txillida, adibide modura. Nolanahi ere, diktaduraren presioak kostunbrista ez izatera bultzatu zituen artistak, eta, areago, modernotasunaren bidea urratzera. Hau da, herri-kanten irakurketa berritzaile horrek eragin zuen moderno sentitzea kanta zahar bat txistukatzean edo xaramelatzean. Eta orduan hartutako bide horrek azalduko luke, urteak joan, urteak etorri, euskarazko literaturaren egungo osasun ona.

Baina, bestalde, orduko lehen urratsen ondorio guztiak ez dira hain onuragarri bilakatu, ez dira horren positibo suertatu. Izan ere, Atxagaren ustez gertatu zena izan zen, azkenean, Zuberoako kanta zahar bat abesten zuten sasoi horretako estudianteez begietaratu zutela, herriaren eta bertako jendeen guztiz irudi apartekoa, alegia, erreallitatearekin oso zerikusi txikia zuen irudia. Izatez, irudi horretako Euskal Herriak ezer gutxi jaso zuen Bilbo edo beste gune industrialetatik, eta, aitzitik, bete-bete harrapatzen zuen herri-kanten abaroa, Zuberoa. Alde horretatik, Zuberoa oso distortsionaturiko *imago vasconum* bat zen, edo, bestela esanda, metonimia baten ondorioa, non parte ñimiño batek osotasuna ordeztu baitzuen, eta nolabait, Zuberoa bihurtu zitzaigun euskalduntasun osoaren adierazle, Andaluzia jakin bat espainoltasunaren ispilu berebizikoa litzatekeen antzera.

Transfigurazio hori nahikoa ulergarria da Atxagaren ustez, diktadurak metafora laguntzen baitzuen eta ez analisi kritikoa eta ñabar-dura. Dena dela, zorioneko diktadura amaitu egin zen noizbait, baina hala ere ez zen berarekin batera iraungi herri-kantak sinbolotzat jotzen zituen sentimendua, edota Zuberoa benetako euskalduntasunaren azken errainutzat hartzen duena.

Haor mitoaren jatorria, edo behintzat, berorren jatorriaren azalpen txalogarri bat. Egia esateko, oso gustukoa dut, gainez gain bat

dator-eta nik neuk bizi izan dudanarekin. Esaterako, ez dut ahaztekoa, 78an-edo Leioatik Zuberoarantz abiatu zen autobusa, estudian-
tez gainezka, eta ez, han, Altzürüküko plaza jauregidunean, ikusi
genuen gure lehen maskarada koloretsua. Gainera ere, lehen errome-
saldi horren emozioari gehitu egin zitzaion, gerora rock izar bilaka-
tzen ikustea Altzürükün Pitxu izandakoa, Niko Etxart.

Nolanahi, joan-etorri batzuen ostetik beste Zuberoa bati errepa-
ratzen diozu berandu baino lehen: lagun zuberotarren bat egingo
duzu eta berak ikusarazten dizun Zuberoa ez da zeuk pastoralaren ait-
zakiaz eskapada arinen batean irudikatu duzuna, ez da Bilboko ito-
menean amestu duzun paradisu euskaldun bukoliko hori. Konturatu
egiten zara, hainbat biderrez joan zaren arren, ez duzula Zuberoa eza-
gutzen.

Hori dela-eta, Mendebalde Kultura Alkarteak oraingo honetan
*Mendebaldeak badu Ekialdea:Zuberoa, hizkuntza, literatura eta etorki-
zuna* jardunaldia antolatu du. Jardunaldi honetan “lagun zuberotar”
batzuk aurkeztuko dizkizugu, eurek bizi duten Zuberoa ekarriko
dizutenak, hau da, mitokoaz haratago benetako Zuberoa ezagutzen
lagunduko dizutenak. Horretarako hainbat zuberotarrengana jo
dugu, gazte eta gazte izandakoak, Zuberoa ikuspegi askotatik eta sen-
tiberatasun desberdinetatik erakuts diezaguten. Euren ahalegina
eskertu nahi dugu, eta zeu, irakurle, animatu gura zaitugu, mitoak
mito, egiazko Zuberoa ulertzen.

“... La Soule has always been the heart of the *pays basque*,
the province where the ancient customs were most jealously
preserved”²

² FEDDEN, R. & FEDDEN, K. 1921. *The Basque Country*. A. & C. Black,
Ltd. London. 199 orr. Aipua 121. orrialdean.